



zerbitzuen katalogoa

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



8. berrikusketa

2022



Erakunde autonomiduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Aurkezpena

Zerbitzuen katalogoaren bertsio eguneratua aurkezten dugu, gardentasuna bermatu nahian, eta IVAPek eskaintzen dituen zerbitzuak eta produktuak hobeto zabaltzeko, ezagutarazteko eta eskuragarriago jartzeko balioko duelakoan.

Katalogo hau berrikusteko, kontuan izan ditugu, batetik, IVAPen eskumen-esparrua ezartzen duten arauak, eta, bestetik, gure produktu eta zerbitzuak jasotzen dituzten administrazio publikoek eta haien zerbitzupeko langileek dituzten itxaropenak eta beharrak. Halaber, funtsezkoak izan dira gaur egun arte lortutako emaitzen azterketa eta eskaintzen ditugun produktuen balorazioa.

Gure kanpoko bezeroei, instituzionalei zein erabiltzaile zuzenei begira eginda dago katalogo hau, beraz, kontuan hartu ditugu bakarrik IVAPek eskaintzen dizkien zerbitzuak.

Maite Barruetabeña Zenekorta
IVAPeko zuzendaria
Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoa

Zerbitzu hauen bidez, IVAPek eraginkortasun osoz jarraituko du euskal administrazio publikoekin elkarlanean, daukagun helburu nagusia lortzeko, hau da, euskal herritarrei zerbitzu publiko bikaina eskaintzeko.



Misioa

M

IVAPen MISIOA da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetzak hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, euskal autonomiaren eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan ikerkuntza sustatu eta aholku eman.
- Administrazioaren digitalizazioa sustatu.



IVAPeko bezeroak

B

Gure bezeroak batez ere euskal administrazio publikoak dira, irakaskuntza, unibertsitatea, osasuna eta polizia kanpo utzita. Kudeaketari begira, IVAPen hiru bezero-multzo bereizten ditugu, alegia:

- Bezero instituzionala: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak, hauek guztiak barne: toki-administrazioak, foru-administrazioak, Eusko Jaurlaritza eta administrazio instituzionala.
- Zuzeneko erabiltzaileak diren bezeroak: Batez ere bezero instituzionalen barruan aipatutako administrazioetako langileak dira, baina kasu batzuetan (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan...) herritar guztiak izaten dira.
- Barne-bezeroa: IVAPeko zerbitzuak eta langileak, Erakundeko zeharkako zerbitzuen bezero direnean.


IVAPen jarduna arautzen duen arau-esparrua

A-E

- 16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 133/2021 Dekretua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen baitira.
- 80/1986 Dekretua, martxoaren 11koa, Lurralde eta Hiri Antolaketarako Euskal Eskolaren egitura eta funtzionamendu arautzen dituen.
- 38/2000 Dekretua, otsailaren 29koa, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duena.
- 48/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duena.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 30/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako langileen prestakuntza planifikatu eta antolatzeko irizpide orokorrei buruzkoa.
- Agindua, 2017ko martxoaren 8koa, Gobernantza Publikoa eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prestakuntza jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzeko dena.
- Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen eskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen.
- Agindua, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta, bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak.
- Agindua, 2004ko maiatzaren 25ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, euskal administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatzeko epaimahaietan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkariak izendatzeko eta parte hartzeko prozedura arautzen duena.
- Ebazpena, 2004ko maiatzaren 28koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariarena, euskal administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatzeko epaimahaietan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkariak izendatzeko eta parte hartzeko prozedura arautzen duena.
- Agindua, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publikoa eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.

P

Prestakuntza



Prestakuntza orokorra

Prestakuntza-planak eta -programak

Prestakuntza-modalitatearen arabera:

- Lineako prestakuntza eta prestakuntza mistoa (aurrez aurreko saioez osatua).
- Aurrez aurreko prestakuntza.
- Jarduerazko prestakuntza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera egiten den prestakuntza).

Prestakuntza-programen irismenaren arabera:

- Orokorrak edo zeharkakoak.
- Administrazio baten esparrukoak.

Prestakuntza-beharren diagnostikoak

Elkarrizketak egitea, banaka zein taldeka, eta lanpostuetan oinarritutako prestakuntza beharren galdetegia betetzea.

Prestakuntzaren ebaluazioa

- Prestakuntzarekiko gogobetetzearen ebaluazioa
- Ikaskuntzaren ebaluazioa, aprobetxamendua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.
- Transferentziaren ebaluazioa: prestakuntzaren bitartez jasotako ezagutzak eta trebetasunak lanpostuan aplikatzen diren ebaluatzea.

Prestakuntza-ekintzen homologazioa

Beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntzaren homologazioa.

Prestakuntzaren finantzazioa

IVAPek urtero ematen dituen ebazpenen bidez ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazioetan prestakuntza ekintzak diruz laguntzeko deialdiak eta betebeharrak. Bestalde, IVAPek hitzarmenen bitartez ere hainbat erakundeen prestakuntza finantzatzen du.

Izapide telematikoak

Ziurtagiri digitalak

Egindako prestakuntzaren ziurtagiri digitalak sortuko dira, beraien lokalizatzailearekin, eta interesdun pertsonen eskura izango dira interneten bidez.

Solaskidegune

IVAPek bere prestakuntza ekintzen eskaintza zuzentzen dieten erakunde-bezeroetako koordinatzaileak kudeatuko dute beraien langileen prestakuntza interneten bidez.



EVETU: hirigintza, lurralde antolamendua eta ingurumenari buruzko prestakuntza

Hirigintzako modulu bidezko ikastaroa

Ikastaroak sei modulu ditu, teorikoak eta praktikoa. Ikasturtero izaten da deialdia, eta deialdi desberdinetan zehar egin daitezke moduluak. Horrez gain, 300 orduko praktikak egin daitezke erakundeetan edo enpresetan, nahi izanez gero; eta Hirigintzako goi-mailako ikastaroa. Behin modulu guztiak gainditua izanda, azken hamar deialdiren barruan, eta deialdietan eskatutakoa betez gero, Hirigintzako diploma ematen zaie ikasleei. Bekak ematen dira ikastaroaren matrikula ordaintzeko, eta diruz laguntzen dira ikasleek erakundeetan edo enpresetan egindako praktikaldiak.

Ikastaro monografikoak

Ikastaro monografikoak, jardunaldiak, mintegiak eta tailer laburrak, Hirigintzan, Lurralde Antolamenduan eta Ingurumenean espezializatuak.

Hizkuntza-prestakuntza

Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako euskara ikastaroak

Oinarrizko ikastaroak, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun-mailara artekoak:

- Hainbat maila, modulu eta intentsitate daude; baita udako ikastaroak ere.
- Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak.

Goi mailakoak, 4. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun-mailakoak:

- Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak.

Udaletan ordezkapenak egiteko diru-laguntzak

Diru-laguntzak ematen zaizkie IVAPekin hizkuntza-prestakuntzaren eta -normalizazioaren arloan hitzarmena izenpetuta daukaten toki-administrazioei, euskarazko ikastaroetara joateko liberatzen dituzten langileen ordezkapenak egiteko.

ELEBI mintegiak

ELEBI programak behar komunikatibo bertsuak dauzkaten langileei prestakuntza eskaintzen die mintegien bitartez. Mintegi bakoitza gutxienez lau eta gehienez sei lagunek osatzen dute eta ahozko edo idatzizko jardunak lantzeko helburua dute.

IDAZLAGUN zerbitzua

Administrazio Orokorraren eremuko prestakuntza zerbitzu honen helburua da lanean euskaraz testuak sortu baina laguntza nahi duten langileen idazkiak zuzentzea eta hobetzea. Korreo elektronikoz, aurrez aurre eta telefonoz ere ematen da prestakuntza mota hau.



Berariazko hizkuntza-prestakuntza

Euskararen benetako erabilera areagotzeko ikastaroak ematen dira, langileen ahozko eta idatzizko behar komunikatiboak kontuan izanik. Ikastaroen iraupena gaiaren araberakoa da, gutxienez bost ordukoak eta gehienez 40 ordukoak. Prestakuntza mota hau aurrez aurrekoa, lineakoa edo jardun bikoa da.

Jardunaldi eta mintegi berezituak

Jardunaldiak eta mintegiak

Europar Batasunarekin, euskal autonomiarekin, tokiko zuzenbide publikoarekin eta administrazio publikoarekin zerikusia duten azterlanak eta ikerketak egiteko jarduerak edo irakaskuntza taxutzea, antolatzea eta aurrera eramatea.



Pertsonen hautaketa eta kompetentzien ebaluazioa

Hautaketarako prozesuak

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, bokal titular eta ordezkoko bana izendatzen dira euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoen hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartzeko.

Enplegu publikoaren eskaintzak, prozesu masiboak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko hautaketa-prozesuak kudeatzea, funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko.

Lan-poltsak sortzea

Lan-poltsen hautaketa-prozesuak kudeatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren aldi baterako langile-beharrei erantzuteko.

Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa eta kontsulta, eta harpidetza egiteko aukera

Euskal administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua ematen da, eta azken berriak Adi IVAP aplikazioaren bidez jasotzeko harpidetza egiteko aukera eskaintzen da.

Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan


Laguntza- eta aholkularitza lanak egiten dira hautaketa-prozesua hasi aurretik (oinarriak aztertu) eta prozesua egin bitartean (logistika, lokalen kudeaketa, probak egitea...). Informazioa bidaltzen da (oinarrien ereduak eta txosten juridikoak).

Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak

Probak prestatzen, aplikatzen eta zuzentzen dira hautagaiak lanpostuen ezaugarri tekniko eta pertsonalei zenbateraino egokitzen zaizkien ebaluatzeko: elkarrizketak, proba psikoteknikoak, eta abar.

Probak prestatzea eta/edo zuzentzea

Administrazioen eskariz, hautaketa-prozesuetako probak prestatu, aplikatu eta zuzentzen dira.



Hizkuntza-eskakizunak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak

- Urtean bi deialdi orokor egiten dira, sei hilean behin.
- Hizkuntza-eskakizunen tramiteak online egin daitezke, baita ziurtagiria jaso ere, Azternet aplikazio informatikoaren bidez.
- Berariazko beharrianak dituzten azterketariei egokitzapenak eskaintzen zaizkie.

Hautaketa-prozesuetan, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak

- Herri-administrazioeko erakundeek (udalek, foru aldundiek...) euren lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuak deitzen dituztenean, IVAPek laguntza eskaintzen die hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta zuzentzeko.
- Hautaketa prozesuetako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko IVAPek deialdi bateratuak antolatzen ditu. Hau da, hainbat administraziori eta hautaketa-prozesuri lotutako probak izan arren, eraginkortasunari begira, batu egiten dira toki eta egun berean egiteko.
- Deialdi bateratu hauek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten dira.



Ikerketarako laguntzak

Deialdiak prestatzen eta kudeatzen dira administrazio publikoaren, Zuzenbide publikoaren edo Administrazio zientziaren arlo politiko, juridiko, ekonomiko eta administratiboari buruzko ikerketa-lanak sustatzeko, bereziki, gure lurraldeko berezitasunak kontuan hartzen dituztenak.

Ikerketa-sariak

Jesus Maria Leizaola Sariaren deialdia prestatzen eta kudeatzen da; sari hori euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten eta edozein ikuspegi zientifikotatik egindako ikerlanei ematen zaie.

Aholkularitza juridikoa eta antolakuntzazko aholkularitza

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen antolakuntzarekin eta hobekuntzarekin zerikusia duten gaiei buruzko azterlanak eta txostenak egitea, kontsultak erantzutea eta arauak prestatzea, aldez aurretik eskatuz gero.
- Udal gida prestatzea eta argitaratzea lau urtean behin. Laguntza-liburu honek fitxa batzuetan jasotzen ditu toki-administrazioen jardueraren eremuaren gaiak.

A

Argitalpenak eta Liburutegia

Argitalpenen edizioa eta salmenta

Aldizkariak

- Administrazioa Euskaraz.
- Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria.
- Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria.

Monografiak

- Herri administrazioaren arlokoak.
- Zuzenbide publikoaren arlokoak.
- Hirigintzaren eta Ingurugiroaren arlokoak.
- Euskara eta administrazio-hizkuntzaren arlokoak.

Liburutegia/Dokumentazio-gunea, Hirigintza eta Ingurumenari buruzkoa

Erreferentzia eta informazio bibliografikoaren zerbitzua

Liburutegia/Dokumentazio-gunera sartzeko eta baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko arauen berri erabiltzaileei ematea; orobat, informazioa eta dokumentuak bilatzeko aholkuak ematea.

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko funtsak erabiltzeko zerbitzua

Liburutegia/Dokumentazio-guneko funtsak kontsultatzeko aukera ezberdinak eskaintzea:

- Irakurgelan bertan monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzea.
- Liburutegia/Dokumentazio-guneak harpidetzan dituen aldizkako argitalpenen artikulua banatzea.
- Mailegua: funts monografikoak bertatik atera eta etxera eramatea.
- Liburutegien arteko mailegua: dokumentuak beste liburutegi batzuen bitartez eskuratzea (Eusko Jaurlaritzako langileei eskainitako zerbitzua).


Hirigintza eta Ingurumenari buruzko informazioa gaika zabaltzeko zerbitzua

Aldiro, Hirigintza eta Ingurumenari buruzko informazio-buletinak prestatzea eta web-orrian argitaratzea.

Web bidezko zabalkunde-zerbitzua

IVAPen web orriaren bitartez honako produktu hauek zabaltzea:

- Liburutegiaren/Dokumentazio-gunearen katalogoa.
- Liburu berrien buletina.
- Hirigintza eta Ingurumenari buruzko informazioa gaika zabaltzeko buletina.
- Esteka interesgarriak.



Itzulpengintza, Interpretazioa, Terminologia eta Administrazio Hizkera

Euskara eta gaztelaniaren arteko itzulpena

Euskal administrazio publikoei eskainitako zerbitzua.

Itzulpengintza juridikoa

Administrazio publikoen jardunerako beharrezko diren lege-testuak itzultzen dira, eta sarean argitaratzen dira. Administrazioko beste erakunde batzuekin lankidetzan zenbait proiektutan, Justizian, esaterako.

Idazketa elebiduna

Eusko Jaurlaritzako sailei eskaintzen zaie, legeak ele bietan idatz daitezzen.

IDABA

IZO Itzultzaile Zerbitzu Orokorraren itzulpenen datu-basea. Administrazioko erakunde guztiei eskaintzen zaie.

Interpretazioa

Ahozko itzulpena Administrazioko batzar eta bileretan.

Terminologia

EUSKALTERM terminologia-banku publikoa elikatzeke eta eguneratzeko hiztegi terminologikoak egiten dira, Terminologia Batzordeak onartutako plangintzari eta irizpideei jarraituz. Terminologiako kontsulta puntualak erantzuten dira, eta terminologia-lan sistematikoak gauzatzen, legetestuak edo bestelakoak idazteari eta itzultzeari lotuta nahiz informazioa sailkatzeko eta berreskuratzeko tresnak itzultzeari lotuta.

DUDANET

Doako kontsulta-zerbitzua, hizkera eta terminologia juridiko-administratiboari buruzko zalantzak argitzeko.

ELET

Euskaraz lan egiteko askotariko hizkuntza-baliabideak biltzen dituen webgune integratua, oso erabilerraza eta intuitiboa.

Administrazio-hizkera argia bloga

Herritarrei eskainitako zerbitzua, hizkeraren eta, oro har, komunikazioaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

Hizkera juridiko-administratiboaren komunikagarritasunarekin lotutako ekimenak bultzatzea

Administrazioko langile zein herritarrentzako argitalpenak, ikastaroak eta material didaktikoa sortzea, euskaraz zein gaztelaniaz.

Lankidetzeta eta aholkularitza hizkera juridiko-administratiboa estandarizatzeko proiektuetan

Dokumentuak estandarizatzea eta izapideekin loturiko testuak egokitzea beste erakunde batzuekin elkarlanean (DACIMA, Osakidetza...).

A

Herritarrentzako arreta

Aurrez aurreko arreta

Hiru lurralde historikoetan IVAPek dituen lau bulegoetan, eta ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bulegoetan.

Telefono bidezko arreta

Herritarrentzako ordutegian, IVAPen lau bulegoetako bakoitzean; eta 19:30ak arte, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren 012 eta 945018000 telefono-zenbakietan.

Lineako arreta

IVAPeko gai orokorrei zein zehatzagoei buruzkoa, www.ivap.euskadi.eus web-gunearen bidez.

WEB



- > Zer da IVAP?
- > Online zerbitzuak
- > Kudeaketa aurreratua
- > Gardentasuna
- > Lehiaketa eta lizitazioak



Arlo nagusiak



Enplegu publikoa

Lan-eskaintzak, HAUTANET, oposizioak, lan-poltsak...



Prestakuntza

Ikastaroak, jardunaldiak, EVETU...



Euskara

Hizkuntza-eskakizunak, ikastaroak, lanerako tresnak...



IZO

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala, hiztegiak, terminologia, legedia euskaraz, IDABA, itzulpen memoriak...



Liburutegia

IVAPeko liburutegia



Argitalpenak

Argitalpen eta aldizkariak



Web-gunea

IVAPen web-gunean produktu-zerbitzu guztien informazioa dago, eta bertan azaltzen zeinetan den posible teletramitazioa.

www.ivap.euskadi.eus

Posta elektronikoa: ivap@ivap.eus

Non



Non gaude

IVAP - Vitoria-Gasteiz

Donostia-San Sebastián, 1

01010

Tel.: 945 017 600

GPS koordenatuak: 42°51'32.7"N 2°41'15.3"W

IVAP - Bilbao

Rekalde zumarkalea, 18 - 1.

48009

Tel.: 944 031 600

GPS koordenatuak: 43°15'57.5"N 2°56'02.1"W

IVAP - Oñati

Unibertsitateko Etorbidea, s/n

20560

Tel.: 943 023 169

GPS koordenatuak: 43°02'02.1"N 2°24'53.6"W

IVAP - Donostia/San Sebastián

San Bartolome, 28

20007

Tel.: 943 023 160

GPS koordenatuak: 43°18'56.2"N 1°59'05.4"W

Harrera-orduak

Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 14:00

